

NARRATIBA

Txatartegirako gizakiak

TXATARTEGIRAKO IPUINAK

Xabier Etxaniz Rojo
Erein, 2010
184 orrialde. 15 euro

Leire ZUBELDIA

Gaur egun, gizakiok autoen, ordenagailuen eta edozein etxe-tresnaren patu bera daukagu. Gureak konponbiderik ez duenean edo konpontzeak merezi ez duenean, txatartegira goaz zuzenean. Zer dira ba ospitaleak txatartegiak ez badira? Eta izateari uzten diogunean ez al gaituzte ba burdina bezala urtzen? Abiapuntu hori aukeratu du Xabier Etxaniz Rojo idazleak "Txatartegirako ipuinak" narrazio sorta idazteko. Ideia hau urrun geratzen da bizitzaren metafora erromantikotik: ibaiko urak itsasokoarekin nahasten direneko iruditik. Gordina da, beltza, esperantzari zirrikiturik uzten ez diona, txatar-pila bat, finean. Baina erreala egiten zaigun irudikapena da. Edo behintzat bat dator garai hauetan nagusitzen ari den ezkortasunarekin. Irakurle hau behinik behin identifikaturik sentitu da ikuspegi horrekin. Agian hori izan da ipuin sorta hau hain gustura irakurri izanaren arrazoietakoa bat.

Gizakiaren definizio gordin hori ez da liburuaren abiapuntura bakarrik mugatzen. Etsipenaren eta esperantzarik ezaren sentipena ipuin guztietan barreiatu da. Bederatzi istorioak osatzen dute liburua. Horiatariko bakoitzak mundutxo bat islatzen du, horretarako behar diren osagai guztiak dituelarik. Kasu honetan,



«protagonista(k) + egoera bat» da idazleak ipuinak osatzeko erabili duen formula. Gehienetan narratzaile orojakile baten ahotsean kontatuak, ederrak dira ipuinak. Irakurlea oharkabean barneratzen da istorioan eta amaieran, zizt! ziztada, batzuetan besteetan baino zorrotzagoa. Baina ipuinen ezaugarriak aipatzen hasita, ondorengo ideia da garrantzitsua, liburuaren oinarria: istorioetako protagonistak txatartegirako gizakiak dira. Gehienak zahartzaroaren atarian edo aro honetan aurteratuta daude. Askok bakardadean bizi dira, inor ez dute zain izaten etxeraten direnean. Badira inoiz izan duten bizitzaren galerak eragindako etsipenean bizi di-

renak ere. Zer lotzen ditu bizitzara? Zer ekarpen egiten diote gizarteari? Galdera hauen oihartzuna etengabea da, eta erantzuna ere presente dago beti: ipuin guztietan agertzen diren autoek, motorrek edota autobusek isurtzen duten olio zirrintak erakusten duen txatartegirako bidea.

Bada beste osagai bat bederatzikotean pisu berezia duena: euskal gatazka. Ia ipuin guztietako paisaia (edo idazleak liburua zabaltzen duen ipuineko tituluaren adierazi bezala, atrezzoan) agertzen da. Gatazkaren alde bateko zein besteko partaideak agertzen dira istorioetan. 'Gari zainzuriak' izeneko ipuinean adibidez, semea preso duen gizonezkoa eta guardia zibil baten aita den militar ohia dira protagonistak. Alde batekoa zein bestekoa izan, bizi duten egoeraren biktima bezala aurkezten ditu idazleak.

Aipatutako bereizgarri horiek guztiek primeran laburbiltzen dira liburuaren izenburuan. Bete-betean asmatu du idazleak. Liburua biribildu du. Baina ezer ez da perfektua: soilik zaharkituta geratu diren trasteak botatzen al dira txatartegira? Hirugarren adinekoa oso eskura dagoen pertsonaia da; egiari zor, ezinbestekoa planteatutako ideia mamitzeko. Baina nago, idazleak ez duela behar adinako saiakera egin pertsonaia ezberdinen bilaketan. Hutsuneren bat aurkitzekotan, protagonisten aniztasuna hartu dut faltan.

Amaitzeko, hasierako ideia berreskuratuz, argibide bat eman nahiko nuke: ezkorra da, baina ez da triste. Hori bai: aurretik irakurri prospektua ea albo-ondoriorik eragiten duen.



Víctor MORENO

Céline

Existen nombres de escritores que apestan a mierda. Uno de ellos es el de Céline.

En Francia, pensaban hacerle un homenaje para celebrar el aniversario de su muerte, acaecida hace cincuenta años, pero, al final, la memoria de los huérfanos de la Shoah lo ha impedido.

Sus escritos antisemitas, "Bagatelas para una masacre" (1937) y "La escuela de cadáveres" (1938), entre otros, siguen pesando sobre la memoria de las víctimas judías.

A estas harturas de la vida, después del baño ideológico que hemos recibido, nadie negará que Céline como persona era un cabrón y un antisemita de cuidado. ¡Como si lo hubiéramos tratado noche y día!

El problema es que, también, era un genial escritor de los que aparecen pocas veces en una época. Su novela "Viaje al fin de la noche" (1932) es tan buena que toda la obra de Marías y de Muñoz Molina juntas paliédec al lado de aquella.


A Céline se le recuerda por su odio a los judíos, pero estaría bien apuntar que su otra literatura iba directa contra la buena conciencia o estómago de la burguesía de su tiempo, hipócrita y putrefacta, que se enriquecía mediante todo tipo de crímenes, alentados desde la esfera del poder.

En "Viaje al fin de la noche" lo advertía: «Os lo digo, infelices, jodidos de la vida, vencidos, desollados, siempre empapados de sudor. Os lo advierto: cuando los grandes de este mundo empiezan a amaros, es porque van a convertirnos en carne de cañón».

O en chivo expiatorio, que es en lo que devino su figura, donde persona y personaje se han diluido a posta.

Sería hipócrita pensar que el único caso de antisemitismo francés fue el de Céline. La verdad es que la sociedad francesa venía siendo antisemita desde la Ilustración. Como botón de muestra, el caso Dreyfus.

KALERATU BERRIAK



OTRO CASO PARA REBECCA MARTINSSON

LA SENDA OSCURA
Asa Larsson
Seix Barral, 2011
464 páginas. 19 euros

"La senda oscura" es la continuación de "Aurora Boreal" y "Sangre derramada", que sigue teniendo como protagonista a la abogada Rebecca Martinsson. El cadáver de una mujer aparece en un lago. Su cuerpo, torturado, tiene una extraña quemadura. La inspectora Anna-Maria Mella será la encargada para resolver el caso.



OPORTUNIDAD A LA ILUSIÓN

LOURDES
Émile Zola
Cabaret Voltaire, 2011
640 páginas. 23,95 euros

En 1891, Zola emprende con entusiasmo un nuevo proyecto: "Lourdes", primera novela de la trilogía "Las tres ciudades", que completan Roma y París. En una época donde impera el positivismo, la razón y la crisis de la fe, Zola da una oportunidad a la ilusión y la mentira, al milagro como sustento del sufrimiento.



RETRATO MORDAZ DE MANHATTAN

CHRONIC CITY
Jonathan Lethem
Mondadori, 2011
448 páginas. 30 euros

"Chronic city" transcurre en un Manhattan con tintes futuristas: un árbol de marihuana ancestral y poderoso llamado Chronic, una espesa niebla gris que cubre Manhattan y un tigre mecánico que tiene aterrorizados a los habitantes de Nueva York son algunos de los personajes de la nueva novela del autor neoyorquino.



PROBLEMAS DE DISEÑO

LA PSICOLOGÍA DE LOS OBJETOS COTIDIANOS | Donald A. Norman
Nerea, 2011
300 páginas. 24,95 euros

¿Por qué los teléfonos tienen teclas que no sirven? ¿Por qué no se sabe, a veces, si para abrir una puerta hay que empujar o tirar? ¿Por qué es tan difícil entender un manual de instrucciones? Con muchos ejemplos similares y en clave de humor, Norman analiza los problemas de los diseños de los objetos cotidianos.